



AKTEA/01

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2024-01-09)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2024-01-09 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:11
Amaiera-ordua:	08:37
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E8000E65F000H4M8D9P0K1K5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/01/2024 10:13:15

DOCUMENTO: 20240943600

Datea: 09/01/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-12-20 TGB (32)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Zaharren egoitzan zerbitzua emateko BFArekin 2024. urteko lankidetz hitzarmena sinatzea onartzea.
- 4.- Udal azokan dauden postuen emakidak esleitzeko deialdia hutsik deklaratzeko onartzea.
- 5.- 390/2023 epaiaz berri ematea.
- 6.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 7.- Eskari eta itaunak.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-12-20 TGB (32)

Bertaratutako batzarkideek 2023ko abenduaren 20ko 32/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- ZAHARREN EGOITZAN ZERBITZUA EMATEKO BFAREKIN 2024. URTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Idazkariak ohartu du idazkaritzako AOTak bere txostenean jaso duela eskumena II. eta III. graduako mendekotasuna daukaten pertsonen egoitza zerbitzua BFAri dagokion heinean, finantziazioa BFAari dagokiola.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000E65F000H4M8D9P0K1K5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/01/2024 10:13:15

DOCUMENTO: 20240943600

Fecha: 09/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Finantziazioaren inguruko eztabaida izan da.

Xedea

BFAgaz besteen laguntza behar duten adinekoei zaharren egoitzan zerbitzua emateko 2024 urterako lankidetza hitzarmena sinatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldunditik, besteren laguntza behar duten adinekoei egoitza zerbitzua emateko hitzarmena jaso da sinatzeko eta 52 plaza hitzartzea proposatzen dute.

Nº PLAZAS	PERIODO	TIPO DE PLAZAS	PREZIOA PLAZA/EGUNEKO (BEZ GABE) PRECIO PLAZA/DÍA	EGUNAK DÍAS	OKUPAZIOA OCUPACIÓN	PREZIOA GUZTIRA (BEZ GABE) PRECIO TOTAL
52	01/01/2024-31/12/2024	ORDINARIAS	109,64	366	100%	2.086.669,00€

Bigarrena: Gizarte Zerbitzuen mapak arautzen duenaren arabera, menpekotasun maila I-eko egoitza zerbitzuak udaletik eman behar dira, hau da; eguneko zentroa eta etxebizitza komunitarioa. Menpekotasun maila II eta III graduko bezeroen egoitza zentroak BFAREN kompetentzia dira.

Hirugarrena: Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Saileko zuzendariak, hitzarmenaren Justifikatze Memoria igorri zuen 2023ko azaroaren 24an.

Laugarrena: Bermeoko Udaleko Idazkaritza Saileko AOTk txosten juridikoa eman zuen 2023ko azaroaren 27an.

Bosgarrena: Bermeoko Udaleko Kontuhartzaileak fiskalizazio txostena eman zuen 2023ko abenduaren 20an.

Argudioak

Bakarra: Menpekotasun maila II eta III graduko bezeroen egoitza zentroak BFAREN kompetentzia dira, eta BFAk proposatutako hitzarmenak ez du estaltzen BFARI dagokion kompetentzia. Baina zerbitzuak egoileen eskubide subjektiboak estaltzen dituen heinean, ezin da zerbitzua bertan behera itxi, egokia den eskumen eskualdaketa gauzatu arte.

Erabakia



Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: BFAgaz besteen laguntza behar duten adinekoei zaharren egoitzan zerbitzua emateko 2024. urterako lankidetzaz hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Interesdunei erabaki hau jakinaraztea.

4.- UDAL AZOKAN DAUDEN POSTUEN EMAKIDAK ESLEITZEKO DEIALDIA HUTSIK DEKLARATZEA ONARTZEA.

Xedea

Udal azokan dauden postuen emakidak esleitzeko deialdia hutsik deklaratzea

Aurrekariak

Lehenengoa: Tokiko Gobernu Batzarrak, 2023ko azaroaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, udal azokan hutsik dauden postuen emakidak esleitzeko deialdia onartu zuen.

Bigarrena: Iragarkia BAOn argitaratu zen (230. iragarki zenbakia), 2023ko azaroaren 30ean, 15 laneguneko epea emanaz proposamenak aurkezteko.

Hirugarrena: Proposamenak aurkezteko epea 2023ko abenduaren 27an amaitu da eta ez da proposamenik aurkeztu enkantera ateratako hutsik dauden udal merkatuko postuentzat.

Argudioak

Lehenengoa: Udal azokako postuak jabari publikoko ondasunak dira, zerbitzu publikoari atxikiak, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 4. artikularekin bat etorritik.

Orobat, hornidura edo merkataritza-jarduera jakin baterako zerbitzu publikoaren administrazio-emakida bateratua egitean datza, bai eta udal-merkatuan xede horretarako izendatutako instalazio iraunkorrak erabiltzean ere, 1955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioen Zerbitzuen Erregelamenduaren 114. artikularen arabera. Izan ere, emakida honen bidez, zuzenean edo berehala betetzen da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.i) artikuluan aurreikusitako horniduren eta merkatuaren helburu publikoa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.34 artikularekin bat etorritik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E8000E65F000H4M8D9P0K1K5

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/01/2024 10:13:15

DOCUMENTO: 20240943600

Fecha: 09/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



Bigarrena: Proposatutako okupazio-izaera eta -epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman behar da, 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikuluetan eta 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena: 33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehiaketa bidez emango dira.

Laugarrena: Kontuan izanda negozio juridiko hori dagokion herri-jabariko emakida egilestearen mende dagoela eta bere legeria propioa izango duela, hori izango da administrazio publikoen ondasunak arautzen dituena, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratuko da, nahiz eta, lege-hutsuneen kasuan, kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion.

Bosgarrena: Ondare araudiak ez du xedatzen prozedura honetan gertatutakoa, hau da proposamenik aurkeztu ez izana. Hori dela eta, kontratazio publikoko araudian ezarritakora jo behar dugu. Hala, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 150.3 artikulua hurrengo dio: "no podrá declararse desierta una licitación cuando exista alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en el pliego."

Paragrafo horren alderantzizko interpretazioa eginez, ulertu behar da proposamenik aurkeztu ezean, prozedura hutsik deklaratu behar dela.

Seigarrena: Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio. Hala ere, 2021eko martxoaren 11ko 702 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Udal azokan dauden postuen emakidak esleitzeko deialdia hutsik deklaratzeko, proposamenik aurkeztu ez delako.

BIGARRENA: Ebazpen hau Bermeoko Udaleko kontratugilearen profileen argitaratzea.

HIRUGARRENA: Honako erabakia Behargintza sailari eta ATBri helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.



Sinadurea eta data



5.- 390/2023 EPAIAZ BERRI EMATEA.

Tokiko Gobernu Batzarrari, irmoa den 390/2023 epaiaren berri eman zaio, eta honela dio:

“FALLO: Estimar el recurso de apelación formulado por la procuradora de los Tribunales Doña Itziar Otalora Ariño en representación de Doña Jerónima Uriartebidaurreta Elorriaga contra sentencia del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 3 de Bilbao, de 22 de diciembre de 2.022, en R. C-A 139/2020, relativo al acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Bermeo-Bermioko Udala, de 30 de abril de 2019 /confirmado el 31 de enero de 2.020), sobre inventario de caminos municipales, y revocar dicha sentencia, estimando el recurso jurisdiccional interpuesto y anulando dichos acuerdos en lo que concierne al camino Nº 11, entre los caseríos Itsasalde y Gibebe, sin hacer imposición de costas en ninguna de las dos instancias.”

6.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

7.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitatutako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000E65F000H4M8D9P0K1K5

Sinatua eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 09/01/2024
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 09/01/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 09/01/2024 10:13:15

DOCUMENTO: 20240943600
Datea: 09/01/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

